

ko uztailaren 29koan "kontseilu"tzat hartu zenari buruz, mintzatu da. Idazkariak, bere ustez, 1970eko otsailaren 28ko agirian argi gelditu zela adierazten du.

*Euskaltzainburua*  
*LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*Juan San Martín*

### 1976 - III - 6

Zaldibarren (Bizkaia', Herriko etxean, 1976ko martxoaren 6an, goizeko hamaika t'erdietan, bildu dira: L. Villasante buru, A. Irigaray, P. Lafitte, E. Larre eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola, J. M<sup>a</sup>. Aranalde, X. Aranburu, M. A. Astiz, M. Atxaga, I. Beobide, J. Berrojalbiz, J. A. Etxebarría, B. Gandiaga, J. Garmendia Kortadi, J. M<sup>a</sup>. Iriondo, E. Knörr, J. L. Lizundia, S. Onaindia, J. M. Torrealdai, P. Uribarren, I. de Urquijo, I. Zaitegi euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

Arrue, Dassance, Davant, Diharce, Haritschelhar, Larzabal eta Olasgerre (Intza'r Damaso A.) jaunek jakinarezten dute beren ezin etorria.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak aditzera eman du, Zaldibarren biltzen garela, aldez aurretik adiarazia zegoenez, Bitor Garitaonandia euskal idazle eta Euskaltzaindikoko laguntzaile izan zenaren jaiotzako ehungarren urteburua betetzeko, baina bitartean Euskaltzaindiaren legezko nortasunarekin jabetzea izan dugunez, honi buruzko kontu ematea besterik ez dela oraingo Euskaltzaindikoen bilera labur hau, ondorean Garitaonandiaren omeneko bilera irekiarekin jarraitzeko. Euskaltzainburuak txosten bat irakurri du, nortasunaren beharra eta hau lortzeko jarraitu diren bideak agertzen dituen. 1970. urteko urtarrileko batzarrean erabaki zela nortasuna lortzearen ardura Euskaltzaindikoko lege-gizonen esku uztea eta urte bereko martxoko batzarrean Arrue jaunak eman zituela lehen urratsak nondik nora behar zutenaren argitasunaz, lehenbizi gure Arautegia berrituaz. Eta geroztik eten gabe jarraitu dela gai hau. 1971ko abenduan eta 1972ko urtarrileko batzarretan aztertu eta onartu zela Arautegia, eta 1972 apirilekoan bironartu. Bereala "Educación y Ciencia"ko Ministerioan presentatua izan zena. Eta geroztik Oreja eta Arrue jaunek, batez ere, bultzatu dutela eginkizun hau. Otsailaren 9rako ministro jaunaren deia izan genuela eta Madrid-era joan zela honako batzorde hau: Euskaltzainburua, idazkaria, idazkariordezkoa, Arrue eta Satrustegi jaunek. Ministruak orduan jarri zigan baldintza bakarra, aurretik "Real" eramatea, Espainiako Akademia guziak beren izena hala dutelako, eta ondoko egunetan bere idazkari teknikoak deituak izango ginela zenbait puntu begiratzeko. Otsailaren 16tik 18ra, Ministerioko idazkari teknikoarekin zenbait puntu aztertzerá, Euskaltzainburua, idazkaria eta idazkariordezkoa joan zirela. Arautegiaren sarrera egiten lagundu eta Arautegiaren formazko gauza batzuk ikutu, hori izan zela egun haietako eginkizuna, eta Gobernuak Barcelonan otsailaren 20an izan duen Ministro Kontsejuak onartu duela Euskaltzaindiaren nortasuna, Real Academia de la Lengua Vasca. "Euskaltzaindia" izenez. Ondorean onartze honek ematen digun eskubidea eta

aurpegi berriaren adiarazpena egiten du. Real Academia de la Lengua, Real Academia Gallega, Real Academia de la Historia edo beste edozein Akademiaren mailan jartzen gaituala eta hemendik izan genezazken alde onak erakutsiaz. Arautegia, Euskaltzaindiaren historiarekin, Ministerio berak argitaratu nahi du, euskaraz eta erdaraz.

Ondorean, idazkariak adierazten du Arautegiko ikutu horiek zer izan diren. Espainitik kanporako erresuman alde hontako Estatuak sartzerik ez duenezkero, baina galerazterik ere nahi ez dutenez, egitura partean, 4. artikuluan, parenthesisean dauden probintzia eta departamendu izenak kentzen dira, euskalki guziak soilik uzteko; eta 16. artikuluan hiriburuen izenak kentzea, hauek aipatu gabe, hiriburuetan ordezkariak sor daitezkeela soilik jartzeko. Horrez gainera, 8. artikuluan pasatzen dira, idazkariaren esku uzteko, gure erako mintegietan ohi den bezala. Arautegiaren sarrera Ministro jaunaren egitekoa denez, lehengo gurearen hobekuntzazko aldaketa batzuk egin zaizkio. Beharkizun hoietarako han bertatik kontsultatuak izan ziren zuzendaritzakoak eta Arrue jauna, erabaki zehatzak hartu baino lehen.

Erregeri, Gobernuko lehendakariari eta Ministro jaunari batzarraren izenean eskarrak ematea erabaki da, eta era berean laguntza eman diguten M. Oreja eta J. L. Los Arcos jaunei.

Idazkariordezkoak hartu diren zorionen zerrenda irakurri du. Eta, guzien artetik, euskaltzainik zaharrenagandik hartu dugun gutuna irakurri du, Aita Damaso Intza-koarena.

Nafarroako Foru Diputazioak Iruñean Euskaltzaindiaren ordezkariak jartzea onartu du, Principe de Viana-ren "Camara de Comptos" etxean jartzeko. Ordezkaritza honen buru, lehendik izendatua zen bezala, berriz onartzen da J. M. Satrustegi euskaltzain jauna izatea.

\* \* \*

Euskaltzaindikoen batzar ondorean, Bizkai eta Gipuzkoako Diputazioetako ordezkari, Durangaldeko zenbait alkate, "Educación y Ciencia"-ko Bizkai eta Gipuzkoako ordezkariak, "Información y Turismo"-ko Bizkaiko Ordezkaría, "Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País" delakoaren Gipuzkoako buru den J. I. Uria bere eta Juan Ramón de Urquijo-ren izenean. Eta herriko agintariekin batean, udaletxearen aurrekaldean, "Plaza Diputación de Vizcaya" izenarekin harria irekian jartzea. Eta eguerdiko hamabi eta laurdenetan udaletxeko batzartegian bilera irekia, hitzaldi laburrez herriari begira.

Balentin Lasuen alkate jaunaren ongi-etorria eta hitzaldia, "Bitor Garitaonandia eta Zaldibar" izenez. Ondorean Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren agurrezko hitzak, elkargoaren legezko nortasunaren aipamena eginez, nortasuna lortu duenetik lehen batzarra Zaldibarren denez, eta azkenik Bitor Garitaonandiak euskara batura eman zituen urratsak adiarazten ditu.

A. Zatarain laguntzaile jaunaren etorri ezinez, idazkariak irakurtzen du hark bidali duen idazkia, "Garitaonandia'tar Bittor neure gogoan" izenekoa. Jose Arrue apaiz jaunak, "Bitor Garitaonandia idazle eta kazetari". Eta, azkenik, Iñaki Beobide laguntzaile jaunak, "Bitor Garitaonandia antzerkigile". Guztiak jaso dituzte entzuleen txalo beroak.

Bilkura bukatzean, Idazkari-ordeak, Bizkaiko Aurrezki Kutxak onharu berri duen "Bitor Garitaonandia" Antzerki Saria iragartzen du. Kutxa honek Euskaltzaindiari babesten dion sariketa honetarako 100.000 pezeztartzen ditu, eta lanak bidaltzeko epea Uztailaren 22an amaitzen da.

Herriko bibliotekan Bitor Garitaonandiaren musika eta idazlanen erakusketa ireki da, Elizaurrean, Bitor Garitaonandiaren omenezko oroitarrria agertu da, eta ondorean Zaldibarko Koral Elkarteak "Agur Jaunak" kantatu du eta talde berekoek Durangaldeko "Dantzari-dantza" eskaini dute.

Anaitasunezko bazkaria, eta arratsaldeko bostetan, parrokian, elkarreza, Zaldibarko koralak Garitaonandiaren musika lanak kantatuaz.

*Euskaltzainburua*  
*LUIS VILLASANTE*

*Idazkaria*  
*Juan San Martin*

### 1976 - III - 27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1976ko martxoaren 27an, eguerdiko ordu batean, bildu dira: L. Villasante buru, A. Arrue, X. Diharce (Iratzeder), A. Irigaray, P. Lafitte, L. Mitxelena eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; G. Alfaro (Lantziri), P. Altuna, X. Aranburu, M. Atxaga, K. Esnal, J. Estornés Lasa, N. Etxaniz, J. Fdez. Setien, J. Garmendia Kortadi, S. Garmendia, J. I. Goikoetxea (Gaztelu), J. Intxausti, J. M. Iriondo, X. Kintana, E. Knörr, J. A. Letamendi, J. L. Lizundia, J. Oleaga, M. Ruiz Urrestarazu, J. M. Torrealdai, I. de Urquijo, eta A. Zatarain, euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martín idazkari dela.

Dassance, Davant, Haritschelhar, Larre, Larzabal eta Lojendio jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Donostiako eta Loiolako Herri Irratiak antolatu duten "24 orduak euskaraz" delakoaren programako sail bat batzar honekin hornitzen denez, gai berezizat hautatu dira "Komunika bideak" eta, beren eskariz, gurekin ditugu Euskal Herriko lau Diputazioetako ordezkariak.

Mahaiburuan: Euskaltzainburu jauna, lau diputatu jaunak, Arabako Diputaziotik, Iz. de Opakua, Hagurahingo alkate jauna; Bizkaikotik, Mendibil, Gordexolako alkate jauna; Gipuzkoakotik, Aiestaran, Orioko alkate jauna; eta Nafarroatik, Iturralde, Baztango alkate jauna; J. M. Satrustegi moderatzaile eta idazkaria.

Euskaltzainburuaren agurrezko hitzak ireki dute batzarra. Eguneko betebeharrari jaramon eginez, Euskaltzaindiko batzarra lehen aldiz ematen dela irratiz eta une gogoangarri hontatik berriz ere aditzera ematen du oraintsuko Euskaltzaindiaren nortasun onartzea. Eta, lau Diputazioe-